



DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren

Ebazpena, 2022ko martxoaren 28koa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021-2027 aldirako EGEF Programaren irismen-dokumentua formulatzen duena.

AURREKARIAK

2021eko abenduaren 23an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021-2027 aldirako EGEF Programaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko eskaera osatu zuen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorriari (3/1998, otsailaren 27koari) eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legeari (21/2013, abenduaren 9koari) jarraikiz.

Eskabidearekin batera hainbat dokumentu erantsi ziren; tartean ziren programaren zirriborroa, legeria sektorialean eskatzen den dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa, honako hauetan ezarritako edukiarekin: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 18. artikulua, eta planen eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzeko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Ekonomia eta Ogasun Sailari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen arloan egoki iritzitako oharra egiteko.

Txostenak jasotzeko indarreko legerian ezarritako epea bukatu zenean, eta jasotako txostenak aztertu ondoren, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazuela behar beste datu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (21/2013, abenduaren 9koaren) 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie, bai eta haien aldaketei ere, lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta



onartu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzorua erabilerari.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira, eta honako hauek guztiak ikusi: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehen. – Euskal Autonomia Erkidegoko 2021-2027 aldirako EGEF Programaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, honako baldintza hauen arabera:

1.- Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena.

Europako Funtsak, Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF) barne, Europar Batasunaren kohesio-politikaren parte dira. Kohesio-politika horren helburua da Europako eskualdeen artean oraindik ere handiak diren desberdintasun ekonomiko eta sozialak eta lurraldearteko desberdintasunak murriztea. Estatu kideek eta Europako Batzordeak kudeatzen dituzte.

EBn inbertsio-iturri nagusia dira funts horiek, estatu kideei hazkundea suspertzen eta indartzen laguntzeko eta enplegua sorraraziko duen susperraldia bermatzeko. Horretaz gain, garapen jasangarria bermatzen dute eta, hala, bat datoz Europa 2020 strategiaren helburuekin.

Euskadiko 2021-2027 aldirako EGEF Programa Eragilea dokumentuaren bidez, EAEn esku hartzeko estrategia eta helburu politiko eta espezifikoak zehazten dira, 2021-2027 programazio-aldi berrirako, Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin (EGEF) kofinantzatutako jarduketegi dagokienez, bai eta helburu horietarako programatutako finantza-zuzkidurak ere.

Hauek dira EGEF funtsekin kofinantzatutako programak arautzen dituzten arau espezifikoak: Xedapen Komunen 2021/1060 (EB) Erregelamendua (aurrerantzean, XKE), zeinak zehazten baititu programek izan behar dituzten finantza-arauak, xedapen aplikagarriak eta edukia; eta EGEFen 2021/1058 (EB) Erregelamendua (EGEF Erregelamendua), EGEF programak prestatzean kontuan hartu beharreko elementuak zehazten dituena (helburu espezifikoak, gaikako kontzentrazioa, etab.).

XKEren arabera, EGEFek bost Helburu Politiko hauei lagundu behar die (5. artikulua):

- 1. HP: Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa lortzea; horretarako, eraldaketa ekonomiko berritzaile eta adimenduna eta IKTen esparruan eskualde-konektibitatea sustatuko dira.
- 2. HP: Europa berdeagoa, karbono gutxikoa, karbono-emisio garbirik gabeko ekonomia erresiliente bateranzko trantsizioan, honako hauek sustatzen dituena: energia-trantsizio garbia eta bidezkoa, inbertsio berdea eta urdina, ekonomia zirkularra, klima-aldaketa apaltzea eta horretara egokitzea, arriskuen prebentzioa eta kudeaketa eta hiri-mugikortasun jasangarria.
- 3. HP: Europa konektatuagoa, mugikortasun hobekoa.
- 4. HP: Europa sozialagoa eta inklusiboagoa, eskubide sozialen Europako euskarria aplikatuz betiere.
- 5. HP: herritarrengandik gertuago dagoen Europa, lurralde mota guztien eta tokiko ekimen guztien garapen integratu eta jasangarria sustatzen duena.

XKEk 6. artikuluan ezartzen duenez, EBren EGEF laguntzak % 30eko ekarpena egin behar du klima-helburuak lortzeko, eta baldintza hori nahitaez bete behar dute EGEFekin kofinantzatutako programa guztiek. Halaber, funtsek biodibertsitatearen galerari aurre egiten lagundu behar dute, eta 2021-2027 aldirako helburu gisa ezarri da urteko gastuaren % 4 helburu horretara bideratzea.

EGEF Erregelamenduaren 3. artikulua helburu espezifikoak zehazten ditu arestian zerrendatutako 5 helburu politiko horietako bakoitzerako. EGEF funtsek, printzipioz, 5 helburu horiei dagozkien jarduketak sustatu ditzakete. Batzordeak 2021-2027 aldirako kohesio-politikaren finantzaketari buruz Espainiarentzat emandako orientabideak ere funtsezko erreferentziak dira. Hala, Batzordeak hiru kategoriatan sailkatzen du, premien intentsitatea, lehentasun-ordenaren arabera, eta Espainiaren kasuan 1. HP, 2. HP eta 4. HP helburu eragileetan identifikatzen ditu lehentasun handiko premiak, ez ordea 3. HP eta 5. HP helburu operatiboetan.

Eusko Jaurlaritzak identifikatuta ditu EAEk aurrez aurre dituen erronka nagusiak, eta zehaztuta ditu erronka horiei datozen urteetan aurre egiteko estrategiak. 2021-2027 aldirako Kohesio Funtzak Kudeatzeko Euskal Esparru Estrategikoan alderdi horiek guztiak laburbiltzen dira, besteak beste. Esparru estrategiko horri esker, 2021-2027 aldirako Euskadiko EGEF Programan jarraitu beharreko estrategia sostengatu eta justifika daiteke.

2021-2027 aldirako Euskadiko EGEF Programak funts guztiak 1. eta 2. helburu politikoetan biltzea planteatzen du; hala, esku-hartzeak eraldaketa teknologiko-digitalaren (1. helburu politikoa) eta eraldaketa energetiko-klimatikoaren (2. helburu politikoa) sustapenean ardaztu nahi ditu.

1. helburu politikoaren kasuan, 5 helburu espezifikoetatik 3 hautatu dira:

- 1.1 HE: Ikerketa- eta berrikuntza-ahalmenak hobetzea eta teknologia aurreratuak erabiltzea.

- 1.2 HE: Digitalizazioak herritarrei, enpresei, ikerketa-erakundeei eta administrazio publikoei dakartzkien abantailak aprobetxatzea.
- 1.3 HE: ETEen hazkunde iraunkorra eta lehiakortasuna indartzea eta ETE horietan enplegua sortzea, baita inbertsio produktiboen bidez ere.

Eta 2. helburu politikoaren kasuan, 8 helburu espezifikoetatik 7 hauek hautatu dira:

- 2.1 HE: energia-efizientzia sustatzea eta berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea.
- 2.2 HE: energia berriztagarriak sustatzea, 2018/2001 (EB) Zuzentarauaren arabera eta, bereziki, Zuzentaruaren zehazten diren jasangarritasun-irizpideekin bat etorrira.
- 2.4 HE: klima-aldaketara egokitzea, hondamendi-arriskua prebenitzea eta erresilientzia sustatzea, ekosistemetan oinarritutako ikuspegiak kontuan hartuta.
- 2.5 HE: uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria sustatzea.
- 2.6 HE: baliabideen erabileran ekonomia zirkular eta eraginkorrerako trantsizioa sustatzea.
- 2.7 HE: naturaren, biodibertsitatearen eta azpiegitura ekologikoen (aurrerantzean, «azpiegitura berdeak») babesa eta kontserbazioa sustatzea, baita hiriguneetan ere, eta kutsadura mota oro murriztea.
- 2.8 HE: hiri-mugikortasun multimodal jasangarria sustatzea, karbono-emisiorik gabeko ekonomia baterako trantsizioaren parte gisa.

2021-2027 aldirako programaren finantza-esleipena 165.679.269 eurokoa da; horietatik, gehienez 112.053.612 euro 1. HPra bideratuko dira (Europa lehiakorragoa eta adimendunagoa), gutxienez 48.022.977 euro 2. HPra (Europa berdeagoa) eta 5.602.681 euro laguntza teknikora.

Baliabideen % 30 behintzat 2. HPra, hau da, «Europa berdeago bat» lortzera bideratu behar da, % 30 klima-helburuak lortzera, eta % 4 biodibertsitate-helburuak lortzera.

Programa gauzatzetik erator daitezkeen ekintzen tipologia askotarikoa da. Besteak beste, honako ekintza eta/edo proiektu hauek finantzatu daitezke:

- Industria-ikerketako proiektuak, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak sortzeko edo lehendik zeudenak era esanguratsuan hobetzeko lagungarri izan daitezkeen jakintza eta gaitasun berriak eskuratzera bideratuak.
- Garapen esperimentaleko proiektuak, hau da, lehendik zeuden ezagutzak eta teknikak (zientifikoak, teknologikoak, enpresa-arlokoak edo bestelakoak) eskuratu, konbinatu, eratu eta erabiltzera bideratutakoak, produktu, prozesu edo zerbitzu berrien edo hobetuen planak eta egiturak edo diseinuak egiteko.
- EAEko enpresetan berrikuntza eta ikerketa sustatuko duten beste ekintza batzuk, esate baterako, oinarritzko ikerkuntza-eraketak produkzioan aplikatzea ahalbidetuko duten ekipamenduetan eta azpiegituretan inbertitzea.
- I+G+B zentroak eraikitzea, hobetzea eta hornitzea.
- Administrazioaren eta gizartearen arteko harremana optimizatuko duten IKT estrategiak bultzatzea.
- Ikastetxeentzako gailu elektronikoak eskuratzeko, ikaskuntza digitala errazteko.
- Enpresa-ehuna ekonomia digitalera bideratzea sustatuko duten ekintzak.
- Eduki digitalen, ikus-entzunezkoen eta bideojokoaren EAEko industriaren garapena bultzatzea.

- Enpresa txiki eta ertainetan ekoizpen-ekipamendua modernizatzeko eta teknologia aurreratua ezartzen laguntzeko ekintzak (enpresetan makineria berriari inbertsioak egitea, modernizazio-maila handia lortzeko).
- Enpresa-proiektu berrientzako finantza-laguntza.
- Suspertzen ari diren sektoreetako edo sektore berritzaileetako enpresen garapena sustatzea.
- Etxebizitza parkea modu efizientean birgaitzeko ekintzak, honako jarduketak barne hartuta: eraikinen ingurutzaileraren hobetzea, bero-ekoizpeneko instalazioak sartzeko edo hobetzea, monitorizazio energetikorako sistemak instalatzea, klimatizazio-sistemak eta etxeko uraren sistemak hobetzea, etab.
- Azpiegitura, eraikin eta zerbitzu publikoen garapena edo hobekuntza, energia-efizientzia hobea izan dadin.
- Energia sortzeko parkea iturri berriztagarrien bidez handitzeko ekintzak: lurreko eta itsasoko parke eolikoaren garapena eta ezarpena bultzatzea, dagoeneko hasita dauden parke fotovoltaikoak burutzeko edo proiektu berriak abian jartzea.
- Biomasa, geotermia eta bioekonomia sustatzeko ekintzak, erregai fosilak murrizten laguntzeko.
- Hidrogenoa erregai berde gisa erabiltzen duen ekonomia berria bultzatzeko ekintzak.
- Instalazio eta eraikin publikoetan eta etxebizitzaren sektorean energia berriztagarriak sortzen laguntzen duten instalazioak garatzeko ekintzak.
- Uholdeen aurkako antolamendu-, bideratze- eta defentsa-jarduketak, EAEn uholde-arriskua murrizteko edo ezabatzeko (zubiak kentzeko/ordezteko obrak, ibaiak bideratzeko hobekuntzak, hobekuntza hidraulikoak eta ibaiak babesteko eta egokitzeko beste obra batzuk).
- Sute-arriskuen prebentziorako eta kaltetutako guneak leheneratzeko jarduketak. Finantza daitezkeen jarduketak gisa hartuko dira baso-masari eragiten dieten jarduketak (birpopulaketak, garbiketak...), sutea jasateko arriskua duten eremuetan erabilerak arautzeko/egokitzeko jarduketak, arrisku-eremuetan dauden komunikazio-bideen inguruko ekintzak, eta abar.
- Arriskua kudeatzeko erremintaren garapena. Alerten aurrean erabakiak hartzeko nahiz alertak aurreikusten laguntzeko sistema teknologikoak ezartzea, garatzea edo hobetzea, bereziki, baso-suteei eta uholdeei dagozkien.
- Lur gaineko ur-masen berreskuratze hidrikorako eta hornikuntzaren hobekuntzarako inbertsioak.
- Saneamendu- eta arazketa-sareak, HUA instalazioak, kolektoreak eta abar eraikitze edo hobetzeko jarduketak.
- Lehentasunezko inbertsioak, enpresetan ahalik eta hondakin gutxien isurtzeko eta zirkulartasuna sustatzeko, bai eta balorizatu ezin diren hondakinen ezabatze-sistemak hobetzeko ere. Amiantoa kentzeko ekintzak; kalitatea egiaztatze sistemak, bigarren mailako materialen zirkularitatea ahalbidetzeko; hondakinen eta bigarren mailako lehengaien kudeaketa jasangarriagoa sustatzeko jarduketak; azpiproduktuak eta hondakinetatik datozen materialak berriz erabiltzea errazten duten jarduketak.
- Ekosistemen ingurumena hobetzeko eta oneratzeko ekintzak. Kaltetutako guneak berreskuratzea eta inguruneen egokitzapen ekologikoa gauzatzea izan behar da ekintza horien helburua.
- Bioaniztasuna babesteko eta berreskuratze ekintzak. Intereseko habitaten, arriskuan dauden fauna eta floraren eta, oro har, naturaguneen eta haien biodibertsitatearen kudeaketa, babesa eta kontserbazioa sustatzeko ekintzak. Garapen jasangarriaren eragina duten eta Natura 2000 eremuetarako lehentasunezko ekintza-esparruan jasota dauden ekintzak.
- Natura 2000 Sareko gune babestuak lehengoratzeko lanak.

- Ibai eremuetan ingurumena lehengoratu eta hobetzeko lanak.
- Kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea, eta EAEko enpresa txiki eta ertainetan prozesu efizienteagoak lortzea xede duten teknologiak, teknikak eta prozesuak eskuratzea/txertatzea.
- EAEko enpresek, eta batez ere enpresa txiki eta ertainek, inbertsioak egitea ingurumen-arauditik haratago joateko edo ingurumenaren babesa hobetzeko, arau aplikagarriak ez dagoenean.
- Hiri-garraio garbia sustatzea ahalbidetuko duten sare eta instalazioetan hobekuntzak egitea, bereziki, ingurumen- eta pilaketa-/mugikortasun-arazoak dituzten hirietan eta metropoli-eremuetan. Autobus publiko ekologikoen zerbitzuak hedatzea. Sostengatutako jarduketek CO₂ murriztea izango dute lehentasunezko helburu.
- Txirrindulari eta oinezkoen garraiorako azpiegiturak eta zerbitzuak hedatzea. Hor sartzan da txirrindularien mugikortasuna hobetuko duten azpiegitura berdeen garapena.
- Mugikortasun elektrikoa, intermodalitatea eta aukera jasangarriak sustatzeko eta gai horien inguruan sentsibilizatzeko ekintzak.
- Mugikortasun adimenduna, ekologikoa eta integratua lortzeko informazio-truke eta konektagarritasuna erraztuko duten sistema teknologikoak (garraio-sistema adimendunak...) garatzea eta aplikatzea.

EGEF programan sartzen diren jarduketek ezinbestean gainditu beharko dute Taxonomiaren Erregelamenduko (2020/852 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2020ko ekainaren 18koa, inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa eta 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzen duena) 6 klima- eta ingurumen-helburuei kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (DNSH izenekoa, ingelesezko sigletan). Hauek dira helburuok:

- Klima-aldaketa apaltzea
- Klima-aldaketara egokitzea
- Ur eta itsas baliabideak modu jasangarrian erabiltzea eta babestea
- Ekonomia zirkularra
- Kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea
- Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta leheneratzea

2.- Ingurumen-helburu estrategikoak, jasangarritasun-printzipio eta -irizpide aplikagarriak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du programak nola laguntzen duen 2020ko IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-ildoak lortzen. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legea; plan eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua, eta Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legea.

2.2 HE helburu espezifikoari dagokionez (energia berriztagarriak sustatzea), kontuan hartuko dira honako hauetan adierazitako irizpideak eta helburuak: klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legea, 2021-2030 aldirako Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratua eta haren ingurumen-adierazpen estrategikoa.

Era berean, kontuan hartuko dira programari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta

zehaztapenak.

Zehazki, honako hauek izango dira programa zuzenduko duten garapen jasangarriaren printzipioak:

Herritarrak babestea, ingurumen-presio eta -arriskuen aurrean.

- Muturreko fenomeno klimatikoen (lehorteak, uholdeak...) ondorioak geldiaraztea.
- Osasunean eragina duten ingurumen-arriskuen monitorizazioa, prebentzioa eta kudeaketa indartzea, horretarako, ingurumen-informazioko sistemak hobetuta.
- Azpiegitura berdeak garatu eta ezartzea, klima-aldaketaren eraginak apaltzeko eta aldaketa horretara egokitzeko, eta onura ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak ekartzeko, natura lurraldean txertatzera bideratutako konponbideen bitartez.

Ingurugiroa babestea, kalteak prebenitzea eta kaltetutako lekuak leheneratzea.

- Funtsezko prozesu ekologikoen eta oinarriko bizi-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzea, eta ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak babestea.
- Natura-ondarearen dibertsitate biologikoa eta geologikoa kontserbatzea eta lehengoratztea, bai eta haren gaitasun produktiboa ere.
- Natura 2000 guneen arteko lotura ekologikoa eta sarearen koherentzia bermatzea.
- Natura-ekosistemen kontserbazio-egoera ona babestea, bai eta ondare geologikoaren eta paisaiaren barietatea, berezitasuna eta edertasuna ere.
- Dibertsitate genetikoaren kontserbazio egoera ona bermatzea, bai eta basaflorearen eta basafaunaren populazioena ere.
- Baliabideak erabiltzea natura-ondarearen eta, bereziki, espezie eta ekosistemen aprobetxamendu jasangarria, kontserbazioa, leheneratzea eta hobekuntza bermatzeko, eta biodibertsitatearen galera garbia eragozteko.
- Galzorian dauden flora- eta fauna-espezieen eta paisaien oneratztea sustatzea.
- Kontserbazio-egoera txarrean dauden ekosistemak oneratzeko eta kontserbatzeko jarduketak planifikatzea.
- Habitata lotzen dituzten korridore ekologikoak zaintzea eta leheneratzea.
- Espezie inbaditzaileen aurkako borroka sustatzea, eta espezie horien izaera inbaditzailea sustatzen duten ingurumen-faktoreetan eragitea.

Baliabideak modu efizientean kudeatzea, eta ekonomia jasangarria, zirkularra eta hipokarbonikoa sustatzea.

- Baliabideen kontsumoak eta haren ondorioak ingurumenaren karga- eta birsorkuntza-gaitasuna gaindi ez dezaten lortzea, eta hazkunde ekonomikoaren eta baliabideen erabilerearen arteko bereizketa lortzea.
- Baliabideen erabilera optimizatzea, produktuak, osagaiak eta materialak txandakatuta, beti erabilgarritasunik handiena emanez, bai ziklo teknikoetan bai biologikoetan.
- Lurzoruaren artifizializazio-prozesuak eta suntsitze-erritmoak pixkanaka murriztea, eta nekazaritzarako lurra babestea.
- Lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrológico handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babesteko.

- Kalitatezko uraren eskariari jasagarritasun-, aurrezte- eta efizientzia-irizpideei jarraikiz erantzutea, emari ekologikoen erregimenekin bateragarria den moduan, eta uraren eskaria kudeatzeko tresnak sustatzea.

Berotegi-efektuko gasak murrizteko neurriak ezartzea.

- Aireratzen diren berotegi-efektuko gasak mugatzea.
- Karbono-hustubideak areagotzea.
- Energiaren aurrezpena sustatzea, bai eta energia-erabilera efizientea ere.
- Energiaren erabilerak ingurumenean eta lurraldean dituen eraginak prebenitzea eta mugatzea.

Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.

- Substantzia arrikutsuetan eta kutsatzaileetan, ingurunera emisio eta isuri gutxiago egitea.
- Lurrazaleko urek (ibaiek, estuarioek, kostaldeko urek, lakuak eta hezeguneak) eta lurpeko eta eremu babestuetako urek (bainatzeko tokiek, ur-hartunek, nitratoekiko kalteberak diren eremuek, etab.) egoera ona izan dezatela lortzea.
- Arrisku naturalen eraginpean (uholde-arriskua, higadura, akuiferoen karga) dauden lurzoruen urbanizazioa geldiaraztea, eta agrologia-gaitasun handikotzat katalogatuta eta babestuta daudenen okupazioa moteltzea.
- Baso autoktonoaren azalera mantentzea edo gehitzea, baso horiek oso onuragarriak baitira airea garbitzeko, uraren erregimen hidrologikoa neurrian eramateko eta higadura kontrolatzeko.

3.- Eremu geografikoa eta ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak.

Programaren geografia- eta denbora-eremua.

EGEF Programaren jardun-eremua Euskal Autonomia Erkidego osoa da.

Programaren denbora-esparruak 2021-2027 programazio-aldiari dagozkion zazpi urteak hartuko ditu, eta aldi hori jarduketak gauzatzeko N+2 arauak ezartzen duen marjinarekin luzatuko da. Horrela, 2021eko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra bitarteko gastua diruz lagundu ahal izango da.

Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak.

Programaren lurralde-eremuan bereziki garrantzitsuak diren esparruak daude, haien natura-balio bikainak, kultura-balioak, edo giza osasunerako eta ingurumenerako gaur egungo edo etorkizuneko arriskuak direla-eta.

Aipatutako lehenengo guneen artean daude Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legea (42/2007, abenduaren 13koa) aplikatuz eratorritako ingurumena babesteko araubideren bat dutenak. Lege hori natura kontserbatzeko eta ondare naturala eta biodibertsitatea babesteko alorrean oinarritzko legeria da. EAEko natura-ondarea kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legeak, bestalde, naturagune babestuen EAEko katalogoa garatzen du IV. tituluko II. kapituluan. Orobat, ingurumenaren aldetik garrantzitsuak

diren eremutzat hartu behar dira Plan Hidrologiko Nazionalari buruzko uztailaren 5eko 10/2001 Legearen gerizpean babestutako ibai-espazioak.

Laburbilduz, babes-kategoria horren barruan sartzen dira ingurumen-azterketan kontuan hartuko diren honako eremu eta elementu hauek:

- Parke naturalak
- Erreserba naturalak
- Biotopo babestuak.
- Monumentu naturalak, zuhaitz eta baso bereziak, mikroerreserbak eta interes geologikoko lekuak barne.
- Paisaia natural babestuak, hau da, beren balio natural, estetiko eta kulturalengatik babes berezia merezi duten lurralde zatiak.
- Natura 2000 Sarea (Batasuneko Garrantzizko Lekuak, Kontserbazio Bereziko Eremuak eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak).
- Nazioarteko hitzarmen eta akordioetan ezarritakoaren arabera formalki izendatutako naturaguneak eta, bereziki, hauek:
 - Ramsar hezeguneak.
 - Urdaibaiko Biosferaren Erreserba.
 - Euskal Kostaldeko Geoparkea.
 - Ospar hitzarmeneko eremu babestuak
- EAEko azpiegitura berdea osatzen duten funtzio anitzeko eta natura-intereseko beste eremu batzuk, LAGetan identifikatuak; Natura 2000 Sarearen koherentzia ekologikoa eta konektibitatea hobetzeko plangintzak definitutako korridore ekologikoen sarea; eta basafaunako eta basafloorako espezieen populazioen migrazioarako, banaketa geografikorako eta elkartruke genetikorako oinarrizkoak diren edo funtsezko garrantzia duten paisaia-elementuak eta lehorreko zein itsasoko guneak. Lehorreko faunarentzako eta fauna urtarrantzako korridoreez gain, aireko korridoreak ere kontuan hartu beharko dira; hala, kontuan hartuko dira, gutxienez, LAGetan eskualde-mailan identifikatutakoak bai eta lurralde historikoaren mailan identifikatutakoak ere (Arabako Lurralde Historikoko Ekologia eta Paisaia Konektibitatearen Estrategia; Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarea planifikatzeko diagnostikoa). 2019. urtea.

Gainera, kontuan hartuko dira ingurumen-balio nabarmenak dituzten beste eremu batzuk, katalogo eta inbentario hauetan jasota daudenak edo etorkizunean jaso daitezkeenak:

- Arriskuan dauden flora- edo fauna-espezieak hedatzeko interes bereziko eremuak, Espezie mehatxatuen EAEko Katalogoan sartuta daudenak (kasuan kasuko kudeaketa-planetan definitutako interes bereziko eremu guztiak barne hartuta), bai eta EAEko landaredia baskularraren zerrenda gorrian dagoen flora berreskuratzeko planetan identifikatutako babes-eremuak ere; halaber, kontuan hartuko dira arriskuan dauden flora espezie kartografiatuen kokaleku ezagun guztiak (geoEuskadiren bidez eskuragarri). EAEko Kiropteroak Kudeatzeko Planak kiropteroentzako proposatutako babeslekuak eta lehentasunezko eremuak, bai eta estepako hegazti kalteberentzako garrantzi bereziko eremuak ere.
- EAEko Basoen Inbentarioan jasotako baso naturalak eta erdinaturalak.
- EAEko lurralde historikoetako foru-arauen babesean aitortutako onura publikoko mendiak.
- Beren paisaia-balioagatik katalogatutako eremuak, honako hauen arabera: EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoaren katalogoa, Paisaiaren Katalogo eta Gidalerroak, eta Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoa.
- EAEko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan jasota dauden guneak.
- EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planean jasota dauden hezeguneak.

- EAEko Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planean jasotako Interes Bereziko Eremuak.
- Batasunaren intereseko habitatak dituzten eremuak (92/43/EEE Zuzentarauaren I. eranskina), bereziki lehentasunezko habitatak, Natura 2000 Sarearen barrukoak edo kanpokoak, eta Eskualde Intereseko Habitatak (eskuragarri daude EUNIS habitat-kartografian, 2019. urtea, geoEuskadi).
- Hegazti-espezie mehatxatuen interesguneak, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan ezarritakoak. Agindu horren bidez, hegazti-espezie mehatxatuen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatu, eta abifaunaren babes-eremuak argitaratzen dira; eremu horietan, goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatze edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko dira.
- Hegaztiak eta Biodibertsitatea Kontserbatzeko Eremu Garrantzitsuak.

Halaber, ingurumenaren aldetik nabarmenak dira balio agrologiko handiko lurzorua bai eta aurretik zerrendatutako eremuen artean ez dauden beste batzuk ere; esate baterako, Kantauri Ekialdeko, Kantauri Mendebaldeko eta Ebroko Mugapen Hidrologikoen Plan Hidrologikoetan ezarritako Eremu Babestuen erregistroan sartzen diren beste eremu batzuk, EAERI dagozkionak, bai eta lurralde- eta hirigintza-plangintzatik eratorritako babes-araubideren bat duten naturaguneak ere, esaterako, Txingudiko Baliabide Naturalak Babesteko eta Antolatze Plan Bereziak antolatutako eremuak.

Kultura-balio handia dutenen artean kultura-ondarearen zati direlako kalifikatuta edo inbentariatuta dauden eremuak edo ondasunak daude, bai eta ustezko arkeologia-eremuak ere.

Ingurumen-arrisku garrantzitsuen eraginpean dauden eremuak dira, besteak beste, urak hartzeko 10 eta 100 urteko errepikatze-denbora duten eremuak, bai eta 500 urteko errepikatze-denbora dutenak eta lehentasunezko Fluxuko Eremuak, eremu higagarriak edo higitzeko arriskua dutenak, kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak pairatzen dituzten edo pairatu dituzten lurzorua eta akuiferoak kutsa ditzaketan eremuak ere. Horiei gehitzen zaizkie baso-suteak izateko arrisku handia duten eremuak, arrisku sismikoa dutenak eta arrisku teknologikoak dituztenak (salgai arriskutsuen garraioa, SEVESO III arriskua).

Programak kokapen- edo garapen-baldintzatzaile gisa hartu beharko ditu eremu garrantzitsu horiek, Euskadiko 2021-2027 aldirako EGEF Programa Erabilgarrien esparruan kofinantzatu daitezkeen eragiketarako hautatzeko prozeduretan.

4.- Jarduketarako gauzatzeko eremu desegokiak.

Zenbait irizpide zehaztu diren arren finantza daitezkeen ekintzak aukeratzeko –eta haien bidez garapen jasagarria eta ingurumen kalitatearen zaintza, babes eta hobekuntza bultzatzeko–, bai eta ekintza horiek biodibertsitateko natura-balio handiko guneetan, Natura Sarea barne, sartzeko ere, ez da baztertu eremu desegokirik dagoenik zenbait jarduketarako gauzatzeko –ez direlako bateragarriak aurreikusitako erabilerekin, edo ez delako behar bezala bermatzen jarduketarako horiek ez dituztela kaltetuko eremu horietako elementu garrantzitsuak–.

Ondorioz, aldatu edo ezabatu beharreko jarduketarik antzeman ez bada ere, zehaztu egin beharko lirateke eta, hala badagokio, mugatu egin beharko lirateke eragiketa jakin batzuk egiteko egokiak ez diren inguruak; bereziki, azpiegiturak garatzea edo ingurune fisikoa zuzenean eraldatzea dakartenak.

5.- Egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra.

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulta-izapidean jasotako txostenetako ingurumen-alderdi garrantzitsuenak jasotzen dira:

Nekazaritza-lurzoruari dagokionez.

Ahal den neurrian, aurrez artifizializatuta dauden lurzoruak erabili behar dira, eta balio agrológico handiko lurzoruak beste erabilera batzuetarako ez birkalifikatzeko ahaleginak egin.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzorian eragina izanez gero, nekazaritza-arloko afektazioaren ebaluazio protokoloan (NAAEP) adierazitako neurri zuzentzaileak hartu behar dira kontuan, bai eta urriaren 2ko 193/2012 Dekretuan jasotako konpentsazio-neurriak ere (193/2012 Dekretua, EAEko nekazaritza-lurzoruaren erabilera kontserbatu eta sustatzekoa).

Kultura-ondarea babesteari dagokionez.

Aurkeztu den 2021-20217 aldirako Euskadiko EGEF Programak ekintza mota zehatzak identifikatzen dituen arren, ez du zehazten zein lurralde espezifikoetan egingo diren, ezta kokapen zehatza ere.

Hori dela eta, ezin dira identifikatu ekintzen eragina jasango duten ondare arkitektoniko edo arkeologiko gisa babestutako elementuak.

Hala ere, esan beharra dago programa honen bidez finantzaturako ekintza horiek garatzean eta aplikatzean, kultur ondarean kalteak eragin litezkeela eta, beraz, bere garaian kontuan hartu beharko direla.

Energia berriztagarriak ustiatzearekin eta energia-efizientzia hobetzearekin lotutako proiektuak hiri-lurzoruak eta hiri-lurzoru ez direnetako eraikinetan eta espazioetan gauzatu ohi dira, eta, beraz, zuzeneko eragin negatiboa izan dezakete eraikinen, arkeologia guneen eta kultura-paisaia babestuen balio historiko-arkitektoniko, arkeologiko eta paisajistikoetan (inguratzaileen gaineko esku-hartzeak, plaka fotovoltaikoen eta energia termosolarra hartzeko gailuen instalazioa estalkietan, energia fotoeolikoko parkeak, etab.).

Era berean, uholde-arriskua saihestera edo murriztera bideratutako jarduketek kalte egin diezaiekete ubideetan eta ibaiertzetan kokatuta dauden eta balio historikoa duten azpiegitura hidraulikoei eta eraikinei; izan ere, gaur egun, azpiegitura edo eraikin horietako batzuk oztopotzat jo daitezke, eta haiek kentzea komenigarria izan daiteke kasu batzuetan ibai-konektibitatea hobetzeko eta, horrela, biodibertsitatea handitzeko, eta beste batzuetan, berriz, ibaien edo itsasoaren ur-maila bat-batean igoz gero, hesi edo presa efektua saihesteko. Hori da, batez ere, ura errota eta burdinoletara, marea-errotetara, dike historikoetara, zubietara eta abarretara desbideratzen zuten –edo duten– presa eta presa txikien kasua.

EGEF Programaren Ingurumen Azterketa Estrategikoan zehatz-mehatz aztertu behar dira kultura-ondare arkitektoniko eta arkeologikoaren gainean izan daitezkeen eraginak, eta prebentzio-neurri zehatzak ezarri behar dira, finantzaturako jarduketak kultura-ondarearen babesarekin bateragarriak direla bermatzeko.

Natura-ondarea babesteari dagokionez.

1.- Programaren zirriborroan 2030erako Euskal Autonomia Erkidegoa garatzeko dituen erronka nagusiak identifikatzen dira, baina ez da aipamen espezifikorik egiten natura kontserbatzearen arloko erronkei buruz; horrenbestez, gutxienez honako esparru-tresna hauen falta sumatzen da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako Geodibertsitate Estrategia.
- Euskadiko Lurzorua Babesteko 2030erako Estrategia (izapidetze-bidean).
- Lehentasunezko Ekintza Esparrua (LEE) Natura 2000 Sarea finantzatzeko, 2021-2027 aldiko urte anitzeko finantza-esparrurako.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), azpiegitura berdea definitzen dutenak.

Beraz, ildo horretan egindako azterketa osatzeko eskatzen da; horretarako, EAEn erronka nagusiak identifikatu behar dira, eta aurrerago EGEFek erronka horiek lortzen nola laguntzen duen baloratu behar da.

2.- Programaren zirriborroak taula batean jasotzen ditu helburu espezifikoak (HE) hautatzeko justifikazioak. 2.7 HE helburu espezifikoaren kasuan, energia- eta klima-trantsizioarekin, natura babestea eta kontserbatzearekin, biodibertsitatearekin eta azpiegitura ekologikoekin lotutako helburuak sartzen dira, eta horiek beste helburu espezifiko batzuei gainjartzen zaizkie, hala nola 2.4 HE helburu espezifikoari.

Gai hori berrikusi egin behar dela uste da, EGEF Programaren 2.7 HEn oinarri bat emateko, EAEn natura-ondarearekin lotutako gaietan ezarritako premiei eta helburuei erantzungo diena.

2.7 helburu espezifikoan jasotako ekintzetako batzuk (hala nola ETEen jardueran eta estrategian ingurumen-aldagaia txertatzeko lankidetzak publiko-pribatua sustatzea, garapen eta frogantza teknologikoko proiektuei laguntzea, teknika eta prozesu efizienteagoak aplikatzea, metodologiak eta kudeaketa-sistemak ezartzea eta abar, eta ETEei laguntzea, ingurumenaren babesa hobetzeko) ezabatu egin behar dira, edo, gutxienez, beste HE batzuetan birkokatu, ezin baita esan ekintza horiek biodibertsitate-helburuei ekarpen positibo garbia egiten dietenik, eta, beraz, ez lirakeke zenbatu behar programazio-aldi honetan biodibertsitate-helburuak lortzeko ezarri den % 4 horretan.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko LEEk ahalegin berezia egin du EGEF funtsen bidez finantza daitezkeen neurriak identifikatzeko. LEEen identifikatutako beharren azterketa espezifiko bat egiteko eskatzen da, 2021-2027 aldirako Euskadiko EGEF Programa honetan bermatuta gera dadin Natura 2000 Sareko lehentasunezko ekintzen finantzaketa.

Idatziko den ingurumen-azterketa estrategikoak egiaztatu beharko du, EGEF Programaren ondorengo bertsioekin, tresna horrekin erantzuna ematen zaiola LEEri eta, beharrezkoa izanez gero, kasuan kasuko egokitzapenak proposatu beharko ditu hala izan dadin.

4.- Azpiegitura berdeari buruzko aipamen espezifiko baten falta sumatzen da. Aipamen hori berariaz egiten da EGEF Erregelamenduak egiten duen HEn definizioan, baina ez da ekintza-tipologia espezifikorik zehazten. Beraz, EAEn azpiegitura berdearen funtzionaltasun ekologikoa berreskuratu, kontserbatu eta bultzatzeko ekintzak identifikatzeko eskatzen da. Azpiegitura berdea Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan eta Euskadiko Natura-ondareari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legean definitzen da.

5.- Hasierako dokumentu estrategikoak jasotzen dituen arau-erreferentziei dagokienez, komeni da erreferentzia horiek IAEn eguneratzea, honako hauek kontuan hartuta:

- 9/2021 Legea, azaroaren 25koa, Euskadiko natur ondarea kontserbatzeari buruzkoa.
- 10/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa.

Hasierako dokumentuko datuak eguneratu egin beharko lirateke; izan ere, gaur egun, Natura 2000 gune guztiek dituzte legezko izendapena, eta gune horretarako berariazko helburuak eta kontserbazio-neurriak.

6.- Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa. Aurrekoarekin bat etorriz, garatzen diren atalek honako eskema metodologiko hau bete behar dute:

1. Proposatutako programaren deskribapena
 - 1.1. Programazioaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Programaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Programaren alternatibak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da azterketak hurrengo alderdietan sakondu behar duela jarraian adierazten den zabalatasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Programaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten programa, eta argi eta garbi identifikatuko da programa gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako atal hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Programazioaren esparrua eta helburuak.

a) Zehaztuko da zer arau-esparruk arautzen duen programa onartzeko prozedura, eta identifikatuko da nor den behin betiko onespeneren organo sustatzailea eta organo substantiboa. Era berean, kronograma eta onartzeko prozesua azalduko dira, baita ondorengo berrikuspenen prozedura eta egutegia ere.

b) Azterketan, laburpen txiki bat jasoko da programarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Gainera, labur-labur adieraziko du zer-nola hartu diren kontuan Plana prestatzean

ebazpen honetako 2. apartatuan jasota dauden ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasuneko printzipioak eta irizpideak.

Irizpide horiek erabili beharko dira 2021-2027 aldirako EAEko EGEF Programa Eragilearen esparruan kofinantzatu daitezkeen ekintzak aukeratzeko prozeduretan.

c) Halaber, kontuan hartu beharko dira, gutxienez, honako arau, plan edo estrategia hauetatik datozen ingurumen-zehaztapenak eta -helburuak:

- 7/2021 Legea, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- 2021-2030 aldirako Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratua.
- 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategia.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitate Estrategia 2020.
- Euskadiko Lurzorua Babesteko Estrategia 2030 (izapidetzen).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lehenasunezko Ekintza Esparrua (LEE).
- EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030erako Plana.
- Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia 2030.
- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- EAEko Eremu Funtzionaletako Lurralde Plan Partzialak, LPP horietako batzuetan ageri diren Paisaiaren Zehaztapenak barne.
- Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala.
- Kostaldea Antolatzeko LPS.

- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Demarkazio Hidrologikoen Plan Hidrologikoak eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak (Kantaurikoak eta Ebrokoak).
- Natura 2000 guneekin edo beste gune babestu batzuekin zerikusia duten beste arau-xedapen batzuk: natura-baliabideak antolatzeko planak eta natura-parkeen (eta biosferarreserbaren) erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planak; gune babestuen plan bereziak; Natura 2000 Sareko guneak izendatzeko dekretuak, espezie mehatxatuak kudeatzeko planak...

Ingurumen-azterketa estrategikoak adieraziko du programak zer harreman dituen aipaturako tresnekin, eta honako hauek nabarmenduko ditu: alde batetik, zer eremutan egiten duten bat programak eta tresna horiek, bai eta zer eremutan indartu ditzakeen programak kasuan kasuko ingurumen-helburuak, helburu horiei dagozkien ekintzak finantzatuta; bestetik, zer eremutan ager daitezkeen helburuak lortzea eragotzi dezaketen kontraesanak edo inkoherentziak.

6.1.2. Programaren irismena, edukia eta garapena.

Programaren irismena ezin hobeto zehaztu behar da. Azterketak honako hauen deskribapen xehatua egingo du: programan zer jarduketa mota sartzen diren, programa horrek zer proiektu, plan, programa edo estrategia espezifiko finantzatzen edo baldintzatzen dituen, haiei nola eragingo dien gerora, eta programa zein eragilek gauzatuko duen edo haren zehaztapenen eragina zein eragilek jasoko duen.

Atal honetan, batez ere, ingurumen-ondorio estrategiko esanguratsu positiboak zein negatiboak eragin ditzaketen helburu espezifikoek dagozkien ekintzak eta eragiketa motak deskribatuko dira.

Helburu espezifiko bakoitzaren barruan, diruz lagundu ahal diren ekintza mota guztiei programak esleitutako finantzaketa erantsiko da.

Natura 2000 Sarearen aldeko jarduketan kasuan, eragindako administrazioei eta herritar interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenen edukiarekin bat etorriz, programak kontuan hartuko du 2.7 helburu espezifikoan jasotako ekintzetako batzuk (hala nola ETEen jardueran eta estrategian ingurumen-aldagaia txertatzeko lankidetzaren publiko-pribatua sustatzea, garapen eta frogantza teknologikoko proiektuei laguntzea, teknika eta prozesu efizienteagoak aplikatzea, metodologiak eta kudeaketa-sistemak ezartzea, eta ETEei laguntzea ingurumenaren babesa hobetzeko) beste helburu espezifiko batzuetan kokatu behar direla, ezin baita esan biodibertsitate-helburuei ekarpen positibo garbia egiten dietenik, eta, beraz, ez lirateke zenbatu behar programazio-aldi honetan biodibertsitate-helburuak lortzeko ezarri den % 4 horretan.

Helburu horren barruan, lehenetsia eman beharko zaie 2021-2027 aldirako Euskadiko Lehenetsuneko Ekintza Esparruan eta Natura 2000 Sarearen finantzaketan berariaz agertzen diren jarduketei, edo naturagune babestuen kudeatzeko tresnetan jasotzen direnei; beraz, jarduketak ez dira lehenetsi behar Natura 2000 gune baten barruan gauzatze hutsagatik.

6.1.3. Alternatiben azterketa.

Hasierako dokumentuan adierazten den bezala, programak gaikako kontzentrazio-baldintzak bete behar ditu; horrek esan nahi du, besteak beste, 2. HPri baliabideen % 30 esleitu behar zaiola (2014-2020 aldira baino ehuneko handiagoa), eta klima- eta ingurumen-arloko konpromisoak bete behar direla: % 30eko ekarpena egitea klima-helburuak lortzeko (2014-2020 aldira ez bezala, aldi honetan helburu hau loteslea da), eta % 4ko ekarpena egiten saiatzea biodibertsitate-helburuak lortzeko (aldi honetako eskakizun berria). Gainera, programan sartutako ekintza mota guztiei ebaluazio bat egin beharko zaie, DNSH printzipioari jarraikiz.

Era berean, EGEF programak diagnostiko-prozesuan identifikatutako erronkei erantzuten die. Diagnostiko horretan, EAEko egungo egoera sozioekonomikoa hartu da kontuan, bai eta EGEF eta XKE araudiek 2021-2027 aldirako ezarritako eskakizunak ere.

Baldintza horiek betetzeko beharrak mugatu egiten du, neurri handi batean, programazio-alternatibak garatzeko aukera.

Horregatik, hauek izango dira alternatiben analisiaren ardatzak: programako zer elementu zehaztu diren alde aurretik hainbat aukera kontuan hartuta, eta ingurumen-irizpideak eta helburuek zein neurritan eragin duten hautaketa horretan.

Alternatibak baztertzeko irizpideak adieraziko dira, eta horien artean sartu behar da ingurumen-inpaktu estrategiko negatibo esanguratsuak eragin ahal izatea (ingurumenaren edo klimaren arloko arauen edo helbururen bat urratzea).

Era berean, inpaktu-azterketak baloratu beharko du zer ekintzek izan ditzaketen eragin positibo txikiak kasuan kasuko ingurumen- edo klima-politikari dagokionez, haiei esleitutako aurrekontua beste jarduketara batzuetara bideratu ahal izateko, hau da, beharrezkoak edo efizienteagoak diren eta ebazpen honen 2. apartatuan aipatutako ingurumen-helburuak lortzen lagunduko duten jarduketetara.

Azterketa horren ondorioz, autonomia-erkidegoan ezarritako ingurumen-helburuak betetzea erraztuko duten edo ingurumen-arazoak konpontzen lagunduko duten alternatibak hautatuko dira.

6.2. Ingurumen-egoeraren ezaugarriak.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena.

Azterketak deskribatu beharko ditu zein diren egungo ingurumen-egoeraren ezaugarri garrantzitsuak, programaren aplikazio-eremuari dagokionez. Deskribapen hori EAEko ingurumenaren egoeraren funtsezko elementuei buruzkoa izango da. Labur-labur jasoko dira ingurumen-ebaluazioaren prozesurako garrantzitsuak diren ingurumen-elementu, -prozesu, -arazo eta -arriku esanguratsuenak. Alde batera utziko dira programako helburu estrategikoekin zerikusirik ez duten ingurumeneko elementuen egoerari buruzko deskribapen orokorrak.

Deskribapen horrek bi helburu ditu: alde batetik, programan sartutako jarduketan bidez konpon daitezkeen ingurumen-gabeziak detektatzea; bestetik, azterketak ebazpen honen 3. puntu adierazitako eremu esanguratsuak identifikatu beharko ditu, non jarduketa jakin batzuk egiteko mugak egon daitezkeen edo jarduketa horiek gauzatzeko moduari buruzko baldintzak ezarri behar diren.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitezkeen lana bere osotasunean kontsultatzen.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi esanguratsuak.

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuetatik abiatuta, programaren eragin-eremuaren gaur egungo ingurumen-egoera aztertuko da

Azterketak ingurumen-ikuspegitik zailak izan daitezkeen eremuak detektatu beharko ditu, programako proposamenak horietara egokitzen.

6.3. Proposatutako programaren ingurumen-ondorioak.

Atal honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketen programan bilduriko ekintzek aurreko atalean deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira.

Ondorio positiboak identifikatuko dira eta, ahal den neurrian, ebazpen honetan jasotako ingurumen-helburuei egiten dieten ekarpena kuantifikatuko da. Bestalde, inpaktu negatibo esanguratsuak aztertu beharko dira, horiek gauzatzeko kautela-neurriak ezarri, eta prebentzio-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak proposatu ahal izateko. Inpaktu negatibotzat jotzen dira aipatutako ingurumen-helburuei kalte egiten dietenak.

Kontuan hartuta programaren izaera orokorra dela, gauzatu nahi diren ekintzen tipologia askotarikoa dela eta diruz lagundu daitezkeen ekintza gehienek kokapen geografiko zehatzik ez dutela, zaila da inpaktuen ebaluazioa a priori zehaztea. Kasu horietan, ingurumen-balorazioa programaren garapenaren ondorengo etapetan osatu beharko da, nahitaezkoa denean,

indarrean dagoen araudian jasotako ingurumen-ebaluazioko prozeduren esparruan. Horretarako, ondorio esanguratsuak eragin ditzakeen proiektu edo jarduketa mota bakoitza ingurumen-inpaktuaren ebaluaziopean dagoen aztertuko da, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Azterketa horretan, kontuan izan behar da ekintza batzuek eragin mesedegarria izan dezaketela ingurumen- edo klima-alderdi jakin batean, baina, era berean, ondorio kaltegarriak eragin ditzaketela garrantzitsuak izan daitezkeen beste ingurumen- edo klima-alderdi batzuetan. Hori gerta daiteke, besteak beste, kasu hauetan: energia berriztagarriak (eolikoa, fotovoltaikoa, eguzki-termikoa, hidroelektrikoa, marea-energia, baso-biomasa) sortzeko instalazioak; ura hartzeko azpiegiturak eraikitzea dakarten jarduketak; jarduera edo sektore jakin batzuk klima-aldaketara egokitzeko jarduketak; arriskuen prebentzioko eta hondamendien aurreko erresilientziako jarduketak (ibaiak bideratzea, adibidez); baso-suteen eraginez kaltetutako gainazalak leheneratzeko jarduketak, baldin eta lurzorua prestatzeko metodo oldarkorrak erabiltzea eta bertakoak ez diren espeziekin birpopulatzea badakarte, eta abar.

Beste eragin batzuk I+G+Bren arloko bikaintasuna bultzatzeko azpiegiturak, ekipamenduak eta gaitasunak hobetzera bideratutako proiektuetatik eratorritakoak izan daitezke (ondorio nagusiak positiboak izan arren); izan ere, eragin negatiboak izan ditzakete atmosferan (emisioak), geologian (lurzoruaren kontsumoa) eta paisaian, baina eragin hori ez da esanguratsua, egitura horiek dagoeneko urbanizatuta dauden eremuetan ezartzen baitira. Hiri-mugikortasun multimodal jasangarria sustatzera bideratutako ekintzei dagokienez, azpiegitura berriak eraikitzearekin lotutako ondorio negatiboak antzeman dira, lurzorua kontsumitzen delako, eta paisaiari ere kalte egiten zaiolako.

Ingurumen-azterketa estrategikoak finantzatu daitezkeen eragiketa mota bakoitzak eragin ditzakeen inpaktu estrategiko esanguratsuetan sakonduko du. Horretarako, kontuan hartuko da eragiketa horiek zer ondorio izan dezaketean ebaluazio honetan aintzat hartutako ingurumen- eta klima-helburu nagusietan (biodibertsitatea, biztanleria, giza osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, klima-faktoreak, faktore horiek klima-aldaketan duten eragina, ondasun materialak, kultura-ondarea, paisaia eta faktore horien arteko erlazioa). Ebaluazio horrek ez ditu aintzat hartuko programak finantzatzen duen proiektu, plan edo jarduketa bakoitzaren eskalan ebalua daitezkeen ingurumen-ondorio ez-estrategikoak, baldin eta proiektu, plan edo jarduketa horiei dagokien ingurumen-ebaluazioa egin behar bazaie onartu aurretik.

Komeni da hautemandako ondorio estrategiko positiboak eta negatiboak koadro batean laburtzea, eta azpimarratzea ondorio horiek zer kasutan izan daitezkeen esanguratsuak aipatutako ingurumen-helburu baterako.

A priori, pentsa daiteke EGEF programak ez duela ingurumen-inpaktu negatiborik izango Natura 2000 Sarean; aitzitik, eragina positiboa izatea espero da, EAeko «trantsizio berdea» bultzatuko baitu datozen urteetan. Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, biodibertsitaterako balio natural handia duten guneetan lehentasuna emango zaie eremu horiek babestu eta kontserbatzera bideratutako jarduketei, eta, hala badagokio, garapen jasangarriari bultzada argia ematen dioten jarduketei, betiere ingurumen-araudia zorrotz betez.

Ildo beretik, programak ezarritako kautela-neurriak kontuan hartzen badira (DNSH printzipioa ebaluatzea eta indarrean dagoen ingurumen-araudia betetzea), ia ezinezkoa da programa gauzatzearen ondoriozko ekintzek lurrazaleko ur-masan aldaketa hidromorfologikoren bat eragitea edo lurpeko ur-masaren maila aldatzea eta, ondorioz, egoera ona edo potentziala galaraztea, edo egoera on edo potentzialaren narriadura eragitea. Gainera, baliabide hidrikoak

babestearekin eta kudeatzearekin lotutako jarduketek bat etorri beharko dute plan hidrologikoetan eta haiei dagozkien ingurumen-adierazpen estrategikoetan ezarritakoarekin.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.

a) Azterketaren atal honetan jasotako neurrien helburua izango da ingurumen-inpaktu positiboak optimizatzea edo hobetzea, eta identifikatutako ingurumen-inpaktu negatiboak saihestea, murriztea edo konpentsatzea.

Programak ingurumen-kautela hauek ezartzen ditu:

- Taxonomia Erregelamenduko 6 klima- eta ingurumen-helburuei dagokienez, EGEF programan sartzen diren jarduketek ezinbestean gaintitu beharko dute kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (DNSH izeneko, ingelesezko sigletan) bete izanaren ebaluazioa. Hauek dira helburu horiek: klima-aldaketa apaltzea, klima-aldaketara egokitzea, baliabide hidrikoak eta itsasokoak modu jasangarrian erabiltzea eta babestea, ekonomia zirkularra, kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea, eta biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea.
- Programan sartzen diren ekintzek indarrean dagoen ingurumen-araudia bete beharko dute eta, hala badagokio, kasuan kasuko ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute.
- Programa baten barruan dagoen jarduketa mota bakoitzak klima-helburuei egindako ekarpena islatzen duen koefiziente bat izango du, bai eta ingurumen- eta biodibertsitate-helburuak lortzeko ekarpena islatzen duen beste koefiziente bat ere. Koefiziente horiek tresna erabilgarriak izan daitezke jarduketa mota bakoitzak eta programa osoak kliman eta ingurumenean izan ditzaketen inpaktuak (positiboak) ebaluatzeko.

Hasiera batean, arestian aipatutako kautelak ezartzea inpaktu negatibo esanguratsuak sortzea minimizatzen duen tresna bat da. Hala ere, lehen adierazi den bezala, ekintza batzuk ingurumen-alderdi jakin batzuetan osagai positiboak izan arren, aldi berean, inguruneke beste elementu batzuetan albo-inpaktu negatiboak eragin ditzakete.

b) Proposatutako neurriek bat etorri beharko dute programaren edukiarekin; deskribatu egingo dira, eta azterketaren 6.3 apartatuan identifikatu diren eta prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi diren ondorioekin lotuko dira.

c) Programaren izaera kontuan hartuta, neurriak, funtsean, jarduera hautagarrien prebentzio-mekanismo orokorretan oinarritu behar dira. Horretarako, azterketak argi eta garbi zehaztuko ditu programako proiektuak edo jarduerak hautatzeko prozedura, irizpideak eta betekizunak, hori guztia ingurumen-helburuen eta lurraldearen harrera-gaitasunaren arabera.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa.

a) Azterketan, ingurumena zaintzeko programa bat garatuko da eta, bertan deskribatuko dira programa aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusten diren neurriak. Zaintza-programa aplikatuko zaie ingurumen- eta klima-alderdietan ingurumen-ondorio esanguratsu positiboak edo negatiboak eragin ditzaketen helburu espezifikoak eta eragiketa motei, honako helburu hauekin:

- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita programa garatu aurretik zeuden ingurumen-arazoaren bilakaera ere.
- Egiaztatzea programak ekarpena egiten duela ingurumenaren eta klimaren arloan EAerako ezarritako helburuak lortzeko.
- Jarduketa bakoitzaren eraginkortasuna (ingurumen-helburuekin lotutakoa soilik) eta kostu/onura erlazioa ezagutzea.
- Programa gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorio positiboak eta negatiboak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den finantzatu daitezkeen proiektuak eta jarduketak gauzatzean.

b) Ingurumena zaintzeko programak ingurumen-adierazle egokiak jaso beharko ditu, programaren jarraipenari aplikatzekoak, bai eta kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruzko proposamen zehatz bat ere.

Azkenean erabiliko diren adierazle bakoitzeko, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agintaritzak adierazi beharko da, bai eta zer fasetan egiten den ere.

Orientazio gisa, eta zehatza izateko inolako asmorik gabe, ingurumen-adierazle mota posibleen zerrenda bat sartu da jarraian:

- Energia berriztagarrien kontsumoa, azken energia-kontsumotik.
- Eraikin publikoetako energia kontsumoa murriztea.
- Etxeetako energia-kontsumoa murriztea.
- Berotegi-efektuko gasen urteko murrizketa zenbatetsia.
- Uholdeei aurrea hartzeko neurrien biztanle onuradunak.
- Leheneratutako lurzorua azalera.
- Programak finantzatu dituen LEEtan jasotako neurrien kopurua eta zenbatekoa
- Kalitatean edo kontserbazio egoeran hobera egin duten habitat naturalen azalera.
- Kontserbazio-egoera hobea lortzeko helburuarekin diruz lagundutako habitaten azalera
- EAEko naturaguneen egoera ekologikoa hobetzea. Hobetu/leheneratu beharreko hektareak.
- Tokiko basoaren azalera, guztizko baso-azalerarekin alderatuta.
- Nekazaritza-azalera, guztizko baso-azalerarekin alderatuta.
- Basoko eta Itsasoko Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartutako espezieentzat egokiak diren habitaten azalera (ha) handitzea.
- SO₂, NO_x, COVNM, NH₃ eta PM_{2,5} gutxiago aireratzea.
- Ur-masekin lotutako ingurumen-helburuak lortzera bideratutako plan hidrologikoetako neurri-programetako jarduketaren kopurua eta zenbatekoa.

6.6. Ingurumen-laburpena.

a) Ingurumen-alderdiak programan nola txertatu diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren azterketaren 6.1.1 apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b) Aztertuko da zenbaterainoko arriskua dagoen planak etorkizunean ingurumenean efektu adierazgarriak izateko, eta argudio nahikoak emango dira, egiaztatzearen, proposatutako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak programan txertatzen badira, oso arrisku txikia dagoela efektu garrantzitsu horiek jazotzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik programa

garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, azterketaren gainerako apartatutan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa.

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta laburpen horrek, bestalde, ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietan prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondoreetarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du programaren hasierako bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, organo sustatzaileak, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, irismeneko dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eraginpeko administrazio publikoekin eta pertsona interesdunekin (dokumentu honen eranskinean ageri dira) kontsultatuko du gutxienez programaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua betez, kualifikazio profesional eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonen egin beharko dute IAEa, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. IAEk eta erantsitako azterketek edo dokumentuek pertsona horiek identifikatu beharko dituzte, titulazioa eta, hala badagokio, araututako lanbidea adierazita. Identifikazioak barne hartu beharko ditu izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren edo helburu bererako beste edozein agiriren kodea (elkargokide-zenbakia entregatuz gero, horrek bat etorri behar du elkargo profesional jakin baten erregistroarekin). Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Haien dokumentuaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira, salbu eta administrazioetik era fede-emailan jasotako datuei dagokienez. Atal monografikoak baditu, apartatu horien arduradunak identifikatu beharko dira.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organismoari, honako hauek barnean hartuta: programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena. – Ebazpen honen edukia jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailari.

Hirugarrena. – Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoak 28.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria
Javier Aguirre Orcajo.

ERANSKINA

EUSKO JAURLARITZA

- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.
- Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.
- Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Osasun Saila.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza. Segurtasun Saila.
- Uraren Euskal Agentzia, URA.
- Ihobe. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

- Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiaren Fauna eta Flora Zerbitzua. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.
- Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiaren Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzua. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua.
- Lan Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua.
- Nekazaritzako eta Lurralde Oreko Zuzendaritza Nagusia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentua.
- Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia. Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentua.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Euskara, Kultura eta Kirol Saila.
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko Natura Ondarearen Zerbitzua. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila.
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiko Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziorako atala. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila.
- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila.
- Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila.

ARABAKO FORU ALDUNDIA

- Natura Ondarearen Zerbitzua. Ingurumen eta Hirigintzako Zuzendaritza. Hirigintza eta Ingurumen Politika Saila.
- Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzua. Ingurumen eta Hirigintzako Zuzendaritza. Hirigintza eta Ingurumen Politika Saila.
- Nekazaritza Zuzendaritza. Nekazaritza Saila.
- Kultura Zuzendaritza. Kultura eta Kirol Departamentua.

BESTELAKOAK

- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, Uraren Euskal Agentziaren bitartez (URA).
- Euskadiko Itsasertz Demarkazioa. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa.
- Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiko Itsasoa Babesteko Zuzendariordetza Nagusia. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa.
- Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Biodibertsitate, Baso eta Desertifikazio Zuzendaritza Nagusia.
- Eudel – Euskadiko Udalen Elkarte (Programaren zehaztapenek eragindako udalerrak).
- Landareen Biologia eta Ekologia Saila. Zientzia eta Teknologia Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV).
- Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Saila, Zientzia eta Teknologia Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV).

INTERESDUNAK

- Ekologistak Martxan.
- Eguzki (Eguzkizaleak Aisialdirako Elkarte).
- Itsas Enara Ornitologia Elkarte.
- Haritzalde.
- GADEN, Natura Defendatzeko eta Ikertzeko Arabako Taldea.
- Medioambiental Izate Ingurugiroaren Taldea.
- Hontza Natura Elkarte.
- GAIA talde ekologista.
- Instituto Alavés de la Naturaleza-Arabako Natur Institutua IAN-ANI.
- Aranzadi Zientzia Elkarte.
- SEO - BIRDLIFE (Euskadiko Ordezkaritza).